

Eraso LGTBIfobo bat izan da Bilboko alde zaharreko festetan

LA HAIN - EUSKAL HERRIA :: 27/05/2025

Erasoa salatzeko elkarretaratzea deitu dute gaur, 20:00etan, Trianguloan.

Bilboko alde zaharreko festetan gertatutako eraso homofobo baten berri eman dute auzoko mugimendu feministak, jai batzordeak eta hiriko hainbat kolektibo disidentek. Kolektibo hauek adierazi dutenez, erasoa ez da kasu bakan bat izan, eta, hortaz, beharrezkotzat jo dute "autodefentsa transmaribolloa" erasoei aurre egiteko.

Gaur, 20:00etan, elkarretaratzea deitu dute Triangulan, indarkeria LGTBIfoboa salatu eta herrikideari elkartasuna adierazteko.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eraso-lgtbifobo-bat-izan-da